

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren jarraipen batzordeak lehenengo bilera egin du

Eguneko gai nagusiak organoaren eraketa eta lanerako ildoen azterketa izango dira

Miércoles, 29 de junio de 2011

[Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren \(PIGRIN\)](#) jarraipenerako batzordeak lehen bilera egin du gaur goizean. Andrés Eciolaza Carballo Nafarroako Gobernuako Ingurumenaren eta Uraren jarduneko zuzendari nagusia izan da bileraren buru.

Organo hori PIGRINen 9. atalean dago jasota, eta planaren garapena ebaluatzeko eta planeko helburuak betetzeko egokitzat jotzen diren aldaketak eta ekimenak gehitzeko egitekoa du. Jarraipen batzordea urtean behin elkartu beharko da. Gaurko bilera organoa eratzeko egin da eta planaren lanerako ildoak eta batzordearen funtzionamendua aztertu dira. Batzordeak berak lanerako sektorekako taldeak osatu ahal izango ditu.

Batzordea hauek osatzen dute: Nafarroako Gobernuako Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak, [Navarra de Medio Ambiente Industrial \(Namainsa\)](#) enpresa publikoko ordezkariak, Partzuergoko ordezkariak eta hondakinen kudeaketako eskualdeetako mankomunitate bakoitzeko ordezkariak eta kudeaketan parte hartzen duten eragile eta erakundeetako ordezkariak. Nafarroako Gobernuak ordezkatzeko, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaz gain, batzordeko kideak dira, halaber: Pedro Zuazo Ingurumenaren Kalitatearen Zerbitzuko zuzendaria eta Félix Armendáriz Ingurumenaren eta Uraren Araubide Juridikoko Atalaren burua, batzordeko ordezkari arituko dena.

Nafarroako Gobernuak [PIGRIN plana onetsi zuen](#) joan den 2010ko abenduaren 27an hondakinen kudeaketarako baliabide publiko eta pribatuen erabilera optimizatzeko plangintza estrategikorako bitarteko gisa. Planak administrazioen eta hiri hondakinen, hondakin industrialen eta nekazaritzako hondakinen kudeaketan parte hartzen duten sektore ekonomikoen jardun koordinatuaren irizpideak eta estrategiak zehazten ditu.



PIGRIN planaren jarraipen batzordearen lehen bilera. Mahaian, Pedro Zuazo, Andrés Eciolaza eta Félix Armendáriz.